

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## ZUIAKO UDALA

**Alkatearen dekretua, zeinaren bidez onesten baita Zuiako Udaleko musika hizkuntza eta piano irakaslearen plazaren behin-behineko izendapena, praktikaldian, langile lan kontratudunen araubidean, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesuan**

Aintzat hartu dira Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak.

Deialdiaren oinarriak 2022ko abenduaren 16ko ALHAOn (144. zk.) argitaratu ziren, eta deialdiaren laburpen bat 2023ko maiatzaren 11ko BOEn (112. zk.).

Abenduaren 28ko 20/2024 Legearen ondoriozko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen kudeaketa esleipena Arabako Foru Aldundiaren esku utzi zen.

Alegazioak aurkezteko epean ez da alegaziorik aurkeztu behin-behineko puntuazioekin epaimahai kalifikatzaileak hartutako erabakiaren aurka.

Behin betiko puntuazioekin epaimahai kalifikatzaileak hartutako erabakia eta izendapen proposamena ikusita, honako hauek dira puntuaziorik handiena lortu duen izangaia eta, beraz, lehenengo eta bigarren geratu direnak:

IZEN-ABIZENAK	NANA
Ainhoa M <sup>a</sup> Beristain Sáenz	****9326R
Jaime Madariaga Meñaca	**2665**P

Izangaiek aurkeztutako dokumentazioa aztertu da.

2024ko urriaren 1eko 439 zenbakiko Dekretuak musika hizkuntza eta piano irakaslearen plaza esleitzea proposatzen du.

Aztertu da alegazio epean alegaziorik aurkeztu ez dela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Bat etorritik 14. eta 15. oinarrietan jasotakoarekin, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.1.h) artikuluan xedatutakoaren babesean, hau

## EBAZTEN DUT

**LEHENENGOA.**– Ainhoa Beristain Sáenz (NANA: \*\*\*\*9326R) behin-behinean izendatzea, musika hizkuntza eta piano irakasle lanposturako, langile lan kontratudunen araubidean.

**BIGARRENA.**– Lanpostua behin-behinean beteko du 6 hilabetez, probaldia edo praktikaldia egingo baitu, Zuiako Udalean, bat etorritik abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorren 15. oinarrian ezarritakoarekin.

Izendapen horiek ebazpen honen egunetik aurrera izango dituzte administrazio ondorioak.

**HIRUGARRENA.**– Lanpostuen atxikipena behin-behinekoa izango da praktikaldia amaitu arte, bat etorritik deialdiaren 15. oinarriaren xedatutakoarekin.

LAUGARRENA.– Aldi horrek irauten duen bitartean, praktiketako langile lan kontratudun finko eta funtzionario izendatutako pertsonak normaltasunez beteko dituzte beren egitekoak, eta dagozkien ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute.

Praktikaldia amaitu eta, hala badagokio, gainditu ondoren, langile lan kontratudun finko izendatuko dira, eta izendapena ALHAOn eta legez ezarritako beste edozein tokitan argitaratuko da.

Murgia, 2024ko urriaren 2a

*Alkate-lehendakaria*

**UNAI GUTIÉRREZ URKIZA**